



2012/7/19ko prentsa-oharra

2011KO ETXEBIZITZA HUTSEI BURUZKO INKESTA

## Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen % 8,4 hutsik zeuden 2011n

### Gipuzkoa da proportzioan etxebizitza huts gehien dituen lurralde historikoa

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2011ko etxebizitza hutsei buruz egindako inkestaren arabera, 2011n 84.890 etxebizitza zeuden hutsik Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), hau da, etxebizitza guztien % 8,4.

Gipuzkoak, 33.844 etxebizitza hutsekin, erkidego osoko etxebizitza hutsen % 39,9 dauka, lurralde horretako etxebizitzen % 10,2. Araban, berriz, 15.226 etxebizitza daude hutsik; erkidego osoko etxebizitza hutsen % 17,9, eta Arabako etxebizitzen % 9,7. Azkenik, Bizkaian 35.821 etxebizitza daude hutsik, EAE osoko etxebizitza hutsen % 42,2, eta lurralde horretako etxebizitzen % 6,8.

Etxebizitza motari dagokionez, etxebizitza guztien % 2,6, guztira 26.120, denboraldi jakin baterako dira, eta gainerakoak 58.771, % 5,8, alegia, jenderik gabekoak, urte osoan daude hutsik.

Arabian denboraldiko etxebizitzak, 6.749, % 4,3ra heltzen dira; eta jenderik ez duten 8.477 etxebizitzek, lurraldeko etxebizitza kopuru osoaren % 5,4 egiten dute. Gipuzkoan denboraldiko 8.985 etxebizitza zeuden 2011n; hau da, etxebizitza guztien % 2,7. Gainera, jenderik gabeko 24.859 etxebizitza zeuden, etxebizitza guztien % 7,5. Bestetik, Bizkaian % 2 dira denboraldiko etxebizitzak, 10.386 guztira; eta hutsik dauden gainerakoak, 25.434, % 4,8, jenderik gabe daude.


Udalerrien tamainaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzetatik % 19,6, 16.627 alegia, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan daude. Beste % 21,8, 2.501 eta 10.000 biztanleko udalerrietan. Etxebizitza hutsen % 20,5, hau da 17.397 etxebizitza, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan daude, hiriburuetan. Zehatzago esanda, Vitoria-Gasteizen 5.800 etxebizitza zeuden hutsik, udalerriko etxebizitza guztien % 5,4; Donostian, 5.902 etxebizitza, kopuru osoaren % 6,7; eta Bilbon, etxebizitza hutsen proportzioa % 3,6ra jaisten da, eta guztira 5.695 etxebizitza daude hutsik. Hutsik dauden gainerako etxebizitzen % 38,1 hamar mila eta ehun mila biztanle arteko udalerrietan daude.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitzak, motari jarraiki Lurralde Historikoaren arabera. 2011. (%)



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza hutsei buruzko inkesta

Azkenik, hutsik dauden hiru etxebizitzetatik bat baino gehiago, % 41,5, 2010 baino lehenagotik daude horrela.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia  
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>